


Denboraren errreskatea

Arabakan



visit
araba  álava



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Denboraren erreshatea
Arabian

Dama eder bat dago, altxor berdeak, dorreak, jauregiak, harriak eta historia dauzkana. Begirada magikoa duen barraskilo batek eta perretxiko berritsu batek babesten dute, eta Araba diotso bere buruari.

Zurik lagunduko die misio garrantzitsu batean, haien historia aldatua izatea ekiditeko.

Nor ari da dena hondatzen?

Ongi etorri Arabako denborara
Orain zuek ere izan zaitezke haren jagoleak!
Amets bat, zazpi abentura eta doilor bat.

Beste urte batez, Zuri eta haren aitaita barraskilotan atera ziren San Prudentzioren bezperan. Egun oso berezia zen hura familian, ilusio handiz bizi zutena beti. Aitaita Pruden, ordea, oso arraro ibili zen azken egunetan.

Haren istorio luzeak mututu egin ziren eta haren begirada galdua zegoen beti. Baina, hala ere, goiz eguzkitsu hartan bere bilobarekin abiaturik zen ohiko barraskilo bilketara.



-Uste dut aurten txiki geratuko zitzaiagula saskia!- esan zuen Zurik gogotsu.

Asko daukagu, aitaita!







Barraskilo haien artean, oso deigarri gertatu zitzaion bat, bestelako begirada zuena.

Oso astiro heldu zion eta, zirt edo zart, bere poltsikoan sartu zuen kontu handiz.

Erresuma bat zen haren poltsikoa, zeinean berarentzat garrantzi handia zuten zenbait objektu bizi baitziren: petunia petalo more bat, txorroskilo bat, adabatutako oihal zati bat eta aurpegi xelebrea zuen perretxiko bat.



Etxera iristean, barraskiloz betetako saskia sukaldako mahaiari utzi eta bere logelara jo zuen Zurik.

Aitaita Pruden geldirik zegoen sukaldako leihoaren aurrean. Gasteizko lau dorreak ikusten zituen handik: San Pedro, Andre Maria, San Bizente eta San Migel.

Maita zuen bere bilobari dorre haien eta, batez ere, haien erlojuen istorio asko kontatzea.

Bere bizitza osoan lan egin zuen hiriko erlojugile ofizial eta bera arduratzen zen eliza guztietako erlojuak beti doi ibiltzeaz. "Orduen jagolea" esan ohi zion Zurik.

Oso txikitatik ikasi zuen lanbidea bere aitarekin, baina amak irakatsi zion bere lana benetan maitatzen.

Arreta handiz begiratzen zien bere lau dorreei, bere lau erlojuei. Ez zuten ordu bera zehazki ematen eta oso kezkatuta zeukan horrek.



Egun batean, San Pedroko kanpainen hotsarekin (eliza horretan dago kanpairik zaharrena), mutiko bat etorri zitzaion galdezka:

-Hitz egin dezakete kanpaiek?

Oso bitxia egin zitzaion aitaita Prudeni kanpainen hotsa ulertzeko modu hori, denboraren ahotsa balira legez.

Dorrera igo ziren eta, harrezkero, ohitura bihurtu zitzairen dorre, eliza eta jauregietatik osteratxoak egitea.

Sukartsu erakusten zizkion Prudenek erlojuen funtzionamendua eta bizitza.

Azkenean Arabako Erlojugile Handiaren laguntzaile bihurtu zen mutiko hura eta, pixkanaka, bera ere Erlojugile Handia izan eta Arabako denbora guztia mendera zezakeela sentitu zuen!






Ohean etzan zen Zuri, bere koardernoan marrazteko gogoarekin, baina oso logura zen...

Halako batean...



-Ez da kasualitate hutsa lehen haren poltsikoan eta orain haren mesanotxean egotea- esan zuen Perretxikoak, sasijakintsu -. Hautatuak gara. Azkar ibili behar dugu, bera da, Zuri, lagundu diezagukeen bakarra!



-Zuri, Zuuuri.....



- Baina... hara! zer da hau? Eta... zuek?- galdetu zuen Zurik, zur eta lur.
- Zuri, Barraskilo nauzu eta bera...
- Perretxin nauzu. Gauza asko daukagu zuri kontatzeko baina oso denbora gutxi. Horixe da arazoā, hain zuzen ere: denbora

Zuriri begiratu zion Barraskilok azaldu nahian:

- Arabako jagoleak gara eta, orain, zeuk lagundu behar diguzu misio garrantzitsu batean.
- Baina, zergatik gaude Portalean? -Zurik ez zuen ezer ulertzen.
- Zerbait ari da gertatzen Araban eta lehenbailehen konpondu behar dugu. Trabatzen ari da denbora, mugitu egiten da eta norbait ari da hura aldatzen
- hasi zen esaten Perretxin, urduri-.Horren erruduna geldiarazteko behar zaitugu. Izugarria da! - jarraitu zuen dramatismo handiz.
- Bidaia bat egin behar dugu eta, horretarako, sartu eta irten behar dugu.
- Sartu eta irten! Sartu eta irten! Sartu. Irten -errepikatzen zuen Perretxinek, gelditu ezinik-. Eta orain... sartu!

XV. mendeko posta etxe zaharreko atetzarra edo atelada zeharkatu zuten...




Beste aldean, naturaren erdian agertu ziren.

-San Adriango tunelean gaude. Erromes, merkataria eta errege askoren bidea izan zen eta, egun, mendizaleena.

Baina... zerbait ez dabil ondo! - jakinarazi zuen Barraskilok.

-Hemendik igaro da!- oihukatu zuen Barraskilok, eskuak kapelura eramanda, hasitako kanpai-hots izugarri bati entzungor egin nahian.

Bat-batean, Zuriren begiak parez pare zabaldu ziren, bere aurrean Alaiako pintura gorriak ikustean.



-Amak misterio handi gisa hitz egiten zidan haietaz, zentauroekin, errege erromesekin, erasoeko gaztelu batekin... -zioen Zurik, liluratuta XIII. mendeko eliza horretan egoteagatik.

-Zuri, kolorea! ez daude gorri! -esan zuen haren lagun barraskiloak-. Zuk eta zure erlojuak konpon dezakezue!

Zurik bere eskumuturreko erlojuari so egin eta bueltak eman zizkion haren orratzei... Gorria pixkanaka itzuli zen.

Kanpai-hotsak berriz ere. Soinuari jarraiki, Sorginetxe trikuharria sartu ziren...



... eta Sorginen Txabola trikuharriara ailegatu ziren.

-Zer usain da hori?

-Ardoa da!

-Bai, mahasti usaina da. Baina apirilean gaude, ez da mahatsak biltzeko garaia. Ez dagokio sasoi honi kolore hain gorrikara.

-Guardian gaude eta karrilloi erloju mitikoa da hori, panpina batzuk dantzatzen dira bertan ordu batzuk emateko.

Baina...

Ez zekiten itzal batek zelatatzen zituela,
haien non, beraz han.







-Egon, ez dira hirurak! Eta... errobot hori? -egin zuen deiadar Zurik.
-Zerbait arraroa gertatzen ari da berriro. Zuri, zure erlojua! Orratza birarazi!
Lehen funtzionatu du eta hemen ere egingo du, seguru.

Berehala paisaiaren kolorea aldatzen hasi eta erlojuko erroboia... desagertu egin zen!

Ez ziren luzaroago gelditu Guardiako Plaza Nagusia, eta ikusi zuten inguruko mahasti guztiek apirileko ohiko itxura berreskuratzen zutela.

-Entzuten duzue kanpai-hots hori berriro?- esan zuen Perretxinek etsipenez.

Begirada galduta mintzatu zen Zuri, zerbait gogortu balu bezala:

-Aitaitak bere laguntzaile batez hitz egin dit inoiz, kanpaiak erotu omen zuten. Ba ote dauka zerikusirik?

-Mmmm... Bai horixe! Goazen soinuaren atzetik.

Hiriko zazpi ateetako bat erabili zuten euren misioarekin jarraitzeko eta hara non sartu ziren...

-Hara! Erdi Aroko hiribildu bat etxe orratzekin!

-Eta, bizikleta arraro hori Bide Berdetik?

-Zuhaitz guztiek dauzkate kolore arraroak...

Ezin zuten sinetsi inguruan ikusten zuten guztia, Arabako Mendialdearen erdian.

-Gero eta ozenagoa da kanpai-hotsa. Oso hurbil behar dugu. Perretxinek nabarmendu nahi zuen bere hausnarketa berritsu batekin:

-Antzinatik, kanpaiek une garrantzitsuak iragartzeko balio izan dute beti. Eta orain, altxorak eta haien historiak hondatzeko darambiltza baten batek!

Urizaharreko erdi aroko atetik pasa ziren.



MAEZTU



ALDA

IZKI




ANTOÑANA



KANPEZU

NAFARROA






- Hara, gaztelu bat! - esan zuen Perretxinek bere aurreko solasa etenda.
- Bai, Zabalateko gaztelua. Arabako armarrian ageri dena da -argitu zuen Barraskilok.
- Lehen, alde garaietan eraikitzen ziren gazteluak dena menderatzeko.
- Horixe nahi du anker horrek: dena menderatu. Baina, dirudienez, ez du astirik izan hemendik bazterrak nahasteko. Ez dut ezer arrarorik ikusten.

Une horretantxe, Perretxinek eta Zurik oihu egin zuten:

- Eeeeeeez. Kanpai hori berriz ere. Eeeez!
- Begira han behean, ikusten dut! -seinalatu zuen Barraskilok.





Istant batean usain bihurtu zen soinua...

-Gozo usaina dago! Azukrea! - baietsi zuen Zurik, gozozale aurpegia jarrita.

-Galde diezaiogun mutil horri ea inor ikusi duen hemendik kanpaita batekin.

-Kaixo. Kaixooooo! - agurtu zuen Perretxinek keinu nabarmenegiak eginez.

Barraskilok, bitartean:

-Gatza behar luke azukre horrek guztiak, Gesaltza Añanan baikaudé.

-Bera izan da! Gatza azukre eta mutiko hori harri bihurtu ditu- atsekabetu zen Zuri, bere eskumuturreko erlojuak ukitzen zuela, hura konpontzeko...



-Abenturarako ordua da.

Tirolina erabili zuten Sobrondik Gorbeialdera eta...
baserri baten atzetan agertu ziren, non izugarrizko gazta
egiten zen.



Buruá erdi irekitako ate batetik sartu eta, kortaren erdian..., zer eta kanpaia zegoen!

-Eraman behar dugu! Aldean badaramagu ez da gauza txar gehiagorik gertatuko, agian- sartu zen Perretxin erabakitasun handiz.

-Kanpaia hemen badago, behar bada ez dago bera bakarrik.

Eta halaxe zen, ez zegoen bakarrik.

Ezkutatuta zegoen pertsonaia, denbora eta haren historia aldatzeko gogoz. Duela zenbait urte Arabako Erlojugile Handiaren lagun zintzoa izan zen baina erotu egin zen orduekin, erlojuekin eta guztiz itsututa zegoen kanpaiekin. Haren familia Gasteizko kanpai fabrikarik handienaren arduraduna izan zen eta, orain, haien boteretsuenak izateko premia zeukan, horretarako beste altxor batzuk hondatu behar bazituen ere.

Bitartean, hiru bidaiariek bidaiari ekin zioten, kanpaia aldean zeramatela.

-Hau pisua kanpaitzar honena! Geldialdi bat egin beharko dugu zerbait jateko.





- Begira, Barraskilo, zorte onekoa zara. Ur freskoa edan ahalko duzu. Metro bakan batzuetara inguruko ur-jauzirik handiena ageri zen, 222 metro garai bera: Nerbioiren jauzia.
- Eta hain freskoa... izoztuta dago guztiz! -egin zuen oihu Zurik.
- Kanpaia daukagu baina bazterrak nahasten jarraitzen du berak -murmurikatu zuen Perretxinek ahopeka.
- Zuri, zure erlojuak -adierazi zuen Barraskilok.

Oso azkarra zen orain hiruren urratsa.

Pixkanaka, astiroago ibiltzen hasi ziren toki berri batera iristean...

-Kexaako konplexua da, Aiara familiarena, haran osoaren jabeena. Susmatzen dut zubi hori zeharkatu behariko dugula -esan zuen Barraskilok oso serio.

Barraskilo jakintsuaren atzean abiatu ziren Zuri eta Perretxin eta, zubi hori zeharkatuta agertu ziren...



-Benetan? Etxean gaude? Tira, hobeto. Hainbeste bidaiia, hainbeste kanpaa, Araba hainbeste konpondu eta... ezer jan gabe! - esan zuen Perretxinek zoruan etzaten zela.
-Azoka eguna da, antza. Baina... zer da hau guztia! - egin zuen oihu Zurik, bere tokian biraka.





Burulleria plazaren erdian, Andatarren Dorrearen aurrean (Zuriren etxearen aurrean) hain zuzen ere, garai guztietako jende andana zegoen pilatuta! Euren garaitik kanpo zeuden pertsona guztiak!

Halako batean, batera jotzen zuten kanpai askoren zarata handi batek eten zuen anabasa hura.



Keinuak egin zizkien Zurik bere lagunei Santa Maria katedralaren sarrerara ematen zuen eskaileretatik igotzeko, sei kanpai baitzeuden han.

Iristean, bat falta zela ohartu ziren: eurek zeukatena. Hura jo eta...



Zarata eten eta plazako pertsonaiek XXI. mendeko itxura hartu zuten berriro.

Kili-kili arraroa sumatu zuen Zurik bere eskumuturrean: erlojuaren orratzek beste forma bat zuten hartua.

-Gure Araba Ederra salbatu dugu, antza, salbatu dugulako, ezta...? -galdetu zuen Perretxinek zalantzatan.

-Txundigarria izan da denboran zehar ibiltzea eta hura konpontzea -egin zuen hasperen Zurik.

-Elkarrekin eta euren tokian daude kanpaiak, baina... kanpaien jabea?

-Ez daukate jaberik. Katedralarenak dira, hiriarenak, pertsona guztienak...

Zerbait jan eta hau dena ahaztu behar genuke -amaitu nahi izan zuen Perretxinek.

Isilean, Zurik eta Barraskilok uste zuten zerbait zegoela konpontzeke artean... Norbait...

Bihar amunean, Armentiarā igo ziren Zuri eta aitaita Pruden, eta bidetik San Prudentzio eta Estibalizi buruzko istoriorik interesgarrienetako batzuk gogoratu zituzten.

Begirada magikoa zuen barraskiloarekin eta perretxiko berritsuarekin bizi izandako abenturazko amets osoa kontatu nahi zion Zurik bere aitaitari, baina isilean gordetzea erabaki zuen. Aitaita Prudenek ere ezkututzen zuen sekreturen bat...

Armentiako basilikak distira egiten zuen jendearen, musikaren eta jai usainaren erdian.

TUN TUNAREKIN TURUTEN DOINUA,
GURE ZAINDARIAREN EGUNA...



Baina aurten, ez dira kanpai soinurik entzungo.

AMAIERA.





Hau da Barraskilo, Perretxin eta Zurirekin zazpi kuadrilletatik bizi izan duzun bidaiari.

Vitoria-Gasteiz: Lau Dorreak, Atelada, Santa Maria katedrala, Burulleria plaza, Andatarren dorrea. "Vuelta de la romería del Calvario" - Ignacio Díaz Olano. Arabako Arte Ederren Museoa.

Arabako Lautada: San Adriango tunela, Alaiza, Sorginetxe trikuharria.

Arabako Errioxa: Sorginaren trikuharria, Guardia.

Arabako Mendialdea: Antoñana, Urizaharra, Izki, Bide Berdea.

Añana: Zabalateko gaztelua, Gesaltza Añana, Sobron.

Gorbeialdea: Gorbeia Parke Naturala, Baserria.

Aiara: Kexaako konplexua, Nerbioi ur-jauzia.

visit
araba  álava



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶